



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

“2021-2022 ikasturteko irakaskuntza eta ikaskuntza planifikatzeko orientabideak”

Eranskina: Erabateko presentzialtasunera itzultzea (2021eko urria)

“2021-2022 ikasturterako orientabideak” dokumentuak, 2021eko apirilaren 29ko Gobernu Kontseiluak onartutakoak, UPV/EHUko ikastegiei eman zizkien 2021-2022 ikasturtearen plangintza egitean bete beharreko jarraibideak. Ikastegiek, horiek kontuan hartuta, 2021-2022 ikasturteko Irakaskuntza Egokitzeko Planak prestatu eta abiarazi zituzten, eta horien arabera ikasturte honetako lehen lauhilekoan hasi dira eskolak ematen.

Kontuan izan behar dugu dokumentuak berak hau ezartzen zuela: “Irakaskuntza egokitzeko neurriak osasun agintariek une oro ezarritako irizpideen arabera moldatuko dira, eta haien gomendioen arabera zorrotzu edo lasaituko dira; hortaz, malguak eta aldakorak izango dira.”. 2021eko irailaren 24an, Hezkuntza sailburuak UPV/EHUko errektoreari jakinarazi zion euskal unibertsitateetan erabateko presentzialtasuna berreskuratuko zela, eta erabaki zen **urriaren lehen hamabostaldian %100eko presentzialtasuna** beteko zela.

Eranskin honek, dokumentuan bertan ezarritako esparru malgua aldatu gabe, aldi berri horretarako orientabideak modu erraz eta argian laburbildu nahi ditu, betiere kontuan izanik **une bakoitzean indarrean dauden ikastegien funtzionamendurako neurriak bete beharko direla** (<https://www.ehu.es/es/ehuko-ikastegien-funtzionamendurako-neurriak>).

Gainera, **gai akademikoei buruz indarrean dauden erabakiak** (jarraibideak eta zirkularrak) bete beharko dira (<https://www.ehu.es/es/gai-akademikoak-2021-2022>), **baita irakasleei eta tutoretzen arretari buruzkoak** ere (<https://www.ehu.es/eu/web/iip/tutoretzen-araudia>), egoera berria dela-eta aplikagarri den guztian.

1. Kontuan hartu beharreko babes neurriak

Adierazi den bezala, unean-unean indarrean **dauden ikastegien funtzionamendurako neurriak bete beharko dira** (<https://www.ehu.es/es/ehuko-ikastegien-funtzionamendurako-neurriak>).

Presentzialtasun osoa berreskuratzeko fase honetan, bereziki garrantzitsuak dira maskarak derrigorrez erabiltzea eta ikasgelak behar bezala aireztatzea irakaskuntza-ikaskuntza jardueran.

2. Irakaskuntzaren egokitzapenak

Presentzialtasun osoa berreskuratzeko aukera ematen du ohiko irakaskuntza jarduerari eta metodologiei berriro heltzeko, eta alde batera uzteko presentzialtasuna murriztea eta edukiera txikiagoetara egokitzea helburu zuten



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

egokitzapenak (adibidez, irakaskuntza bimodala edo ispilu ikasgelak), irakaskuntza modalitate guztietan (magistralak, ikasgelako praktikak, tailerrak, laborategiko praktikak, etab.). Hori guztia dokumentu honen 5. atalean, *Ikasleak*, eta unean-unean indarrean dauden erabakietan (jarraibideak eta zirkularrak) aurreikusitako neurriak alde batera utzi gabe.

Ikasleei laguntza akademiko egokia emateko, **oraindik ere beharrezkoa da sail guztiek bermatzea eGela aktibo egongo dela ematen dituzten irakasgai guzti-guztietan**, tresna unibertsala baita ikasleekin zuzeneko komunikazioa izateko, eta, beraz, funtsezkoa izango da erabateko presentzialtasuneranzkoaldi berri honetan ere.

Curriculumeko eta curriculumez kanpoko praktikei eta praktika klinikoei dagokienez, joera orokorra presentzialtasuna izango da, baina beti errespetatu behar dira horiek gauzatuko diren antolaketa unitateek, enpresek eta erakundeek ezarritako neurriak.

3. Ebaluazioa

Presentzialtasun osoko egoera berri honekin bat etorritik, ikastegiekin aurrez aurreko ebaluazioa planifikatuko dute.

Nolanahi ere, une bakoitzean indarrean dauden gai akademikoei buruzko erabakietan (jarraibideak eta zirkularrak) adierazitakoa bete beharko da (<https://www.ehu.eus/es/gai-akademikoak-2021-2022>), eta arreta berezia jarri beharko zaie COVID-19a dutenei edo gaixotasunaren aurrean bereziki kalteberak diren ikasleen egoerei.

4. Irakasgaien irakaskuntza gidak

Urtero bezala, irakasleek GAURen eguneratu zituzten irakasgaien irakaskuntza gidak 2021-2022 ikasturtea hasi baino lehen. Irakasleek eta sailek aurreikusitako ohiko aldaketek gain, eguneratze honek ebaluazioari buruzko informazio zehatza jasotzen du, "2021-2022 ikasturteko irakaskuntza eta ikaskuntza planifikatzeko orientabideak" dokumentu nagusiaren 3. atalean jasotako aurreikuspenak kontuan hartuta:

- Ebaluazio modalitatea.
- Ebaluatze bestelako aukerak, aurrez aurrekoa egin ezin denerako edo urrutitik egin behar izanez gero

Hortik abiatuta, egoera berriak presentzialtasuna berreskuratzea eskatzen du, **baina irakaskuntzarako eta/edo ebaluaziorako alternatiba mantendu behar dugu, modu ez-presentzian edo urrutitik egin beharko balitz ere, COVID-19ren arrazoiengatik modalitate presentzian sartu ezin diren ikasleen kasuan.**



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Irakaskuntza gidaren batek egoera berrira egokitzeko aldaketaren bat beharko balu, irakasgaiaren ardura duen sailak egin beharko du, eta eragindako ikasleei lehenbailehen jakinaraziko zaie, eGelaren bidez zein ikasgelan bertan. Doikuntza horiek presentzialtasunari berrekiteko ezinbestekoak diren gutxienekoak izango dira, eta ezin izango da justifikatu gabeko aldaketarik egin.

Indarrean dagoen irakaskuntza gida beti eskuragarri eduki beharko da eGelan, eta argi eta garbi nabarmendu beharko dira egoera berria dela-eta egin behar izan diren egokitzapenak.

5. Ikasleak

Ikasleek ezagutu behar dute behar besteko aurrerapenarekin eta, betiere, 2021-2022 ikasturteko matrikula aldia hasi aurretik, ikasturtearen eta irakasgaien antolaketa orokorra. Erabateko presentzialtasunera igarotzeak, ikasturtea hasita egin dena, aldaketak ekar ditzake zenbait ikastegietan ikasturtearen antolaketan eta irakasgaien ordutegietan.

Egoera honen aurrean, irakasleek behar bezala gainbegiratuko dituzte ikasleak, eta hauek izan ditzaketen zailtasunak aztertu beharko dira, ikasturtearen hasieran aurreikusitako baldintzak aldatu direla kontuan hartuta.

Horrekin batera, **kontuan izan behar da, erabateko presentzialtasuna berreskuratu arren, salbuespenezko osasun egoeran jarraitzen dugula**. Hala, egoera berriak, oro har, presentzialtasun osora itzultzea eta hari egokitutako irakaskuntza eta ebaluazioa aurreikusten badu ere, UPV/EHU'n beren ikasketen jarraipena modu presentzian egiteko aldi baterako ezindurik dauden COVID-19rekin lotutako inguruabarren ondorioz (gaixotasuna kutsatzea, ospitaleratzea, medikuek egiaztatutako eta ikasleen Errektoreordetzak onartutako kalteberatasun bereziko egoera ...) ikasleen kasuan, orain arte izan diren egokitzapen akademiko eta pedagogikoek indarrean jarraituko dute, ikasketek egoera horietan jarraituko dutela bermatzeko.

Horren inguruan, une bakoitzean indarrean dauden gai akademikoei buruzko erabakiak (jarraibideak eta zirkularrak) bete beharko dira (<https://www.ehu.eus/es/gai-akademikoak-2021-2022>). Alde horretatik, gogorarazten da Webex bideokonferentzia tresnak unibertsitateko kideen eskura jarraituko duela ikasturte osoan zehar, eta, beraz, egoera horietan eskolen jarraipen telematikoa errazteko erabil daitekeela.

Era berean, irakasgaien ebaluazioari dagokionez, ikasleek bide egoki bat eduki behar dute, batez ere, COVID-19rekin lotutako zirkunstantziak direla-eta, hura normaltasunez egitea ezinezkoa denean, gainerako ikasleen aukera berdinekin egin ahal izateko, betiere 3. puntuari aipatutako erabakietan ezarritakoari jarraiki.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

6. Ikastegi bakoitzak egin beharreko lana

Ikastegiek koordinatuko dute erabateko presentzialtasunerako trantsizioa, ordutegia eta irakasgaien eta taldeen banaketa eskuragarri dauden espazioetara egokituz. Irakaskuntza-ikaskuntza jarduera, % 100eko presentzialtasunarekin, ahalik eta lasterren hasi beharko da, urriaren 4tik aurrera, eta, beranduenez, urriaren 18tik aurrera.

Ikastegi bakoitzeko dekanotza edo zuzendaritza taldeak Graduaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren arloko Errektoreordetzara helaraziko dio bere titulazio ofizial bakoitzeko (graduak eta masterrak) egoera, eta titulazio bakoitzerako adieraziko du ea (a) jada erabateko presentzialtasunarekin ematen den, edo (b) ea erabateko presentzialtasunari ekingo dion goian adierazitako aldian, eta, kasu horretan, zein egunetik aurrera hasiko den irakaskuntza hori ikasgeletako ikasleen % 100ekin. Informazio hori vicet.grado-innovacion@ehu.eus helbidera bidaliko da, eta zentruko **web-orrian ere argitaratuko da**, *2021-2022 ikasturterako Irakaskuntza Egokitzeko Plana* jasota dagoen atalean.

7. Jarraipen Batzordea

Gobernu Kontseiluan "Irakaskuntza eta ikaskuntza planifikatzeko orientabideak" dokumentuaren lehen bertsioa onartu ondoren eraturako Jarraipen Batzordeak (dokumentuaren sarreran dago zehaztuta haren osaera) zaintzen jarraituko du fase berri honetan irakaskuntza-ikaskuntza prozesua behar bezala garatzen dela, eta organo eskudunei beharrezko aldaketak eta egokitzapenak egiteko eskatuko die, hala badagokio.